

BIZIKIDETZAKO KOADERNOA

ESKOLAKO BIZIKIDETZA HOBETZEKO V. KANPAINA
2011

“Hezten gara elkarrekin bizitzeko”



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

Titulua:

Bizikidetzako koadernoak.

Eskolako bizikidetzak hobetzeko v. Kanpaina - 2011

Elaboración:

Asesoría para la Convivencia, Departamento de Educación

© NAFARROAKO GOBERNUA

Hezkuntza Departamentua, 2011

Diseinua eta maketazioa: Cobo-Munárriz Diseño Gráfico

Lege gordailua: NA-2067-2011

Inprimaketa: Gráficas Biak S.L.

Aurkezpena

Eskolako bizikidetza hobetzeko V. kanpaina aurkeztu nahi dugu, irakasleei bizikidetza planak hobeki garatzeko baliabideak eskaini nahi baitizkiegu.

Kanpaina honetarako bizikidetzako koaderno bat prestatu da, ikastetxeetako bizikidetza batzordeendako lagungarri izanen dena prestakuntza arloan. Koaderno honen bukaeran DVD bat erantsi da, barnean Irakasleak bizikidetzan trebatzeko materialak dituena.

Hezkuntza Departamentuak material hauek bizikidetza planak garatu eta hobetzeko lanean irakasleendako lagungarri izatea nahi du.

Ikastetxeei eskertu eta animoak eman nahi dizkiet jarrai dezaten bizikidetza ikasteko lan profesionalean eta eskolako giro ona lortzen, denok nahi dugun hezkuntza arrakastatsu eta kalitatezkoa lortzeko erabakigarriak baitira.

Adeitasunez,

Alberto Catalán Higuera
Hezkuntzako kontseilaria

Aurkibidea

I. KOADERNOA

1. Irakasleak bizikidetzan trebatzeko materialak. Sarrera. (azken orrialdean erantsitako DVDA	9
2. Bizikidetzako Aholkularitzako datuak	13
3. Araudia	15
4. Laguntza eskaerak.....	17
5. Bizikidetzaren batzordea eta arduradunak.....	21
6. 2011-2012rako eskaintako prestakuntza jarduerak.....	23
7. Bizikidetzarako Aholkularitzaren web orrialdeko. Orientabideak.....	25
8. Bibliografia	27
9. Baliabide interesgarriak Interneten.....	29

II. AGENDA

10. Bizikidetzaren batzordearen egutegia.....	37
11. Bizikidetzaren batzordearen bilerak.....	49



I. kuadernoa

1. Irakasleak bizikidetzan trebatzeko materialak

Consuelo Gallego Gallegoren berrikuntza proiektua: sarrera (DVDa erantsi da)

Gaur egun, hezkuntzaren esparruan zein, oro har, gizartearenean kezka dago ikastetxeetan bizikidetzari aurrea hartu behar zaionean eta bizikidetzak baketsuan eragiten duten arazoei konponbideak bilatu behar zaizkionean. Eta maiz kezka horri gehitu behar zaizkio unean-unean eskolako indarkeriaren gaineko berriak.

Ikastetxeetan bizikidetzak hobetzeko biderik eraginkorrenetako bat irakasleei prestakuntza ematea da. Prestakuntza hau hainbatenez eta eraginkorrago izanen da ikastetxeetan eta irakasle taldeen inguruan egiten bada.

Gure erkidegoan esparru honetako prestakuntza ez da berria. Azken urteotan bizikidetzarako prestakuntza bultzatu da sareen, mintegien, jardunaldien, informazio saioren eta abarren bidez eta irakasleen garapena bilatu da, bakarkakoa eta talde mailakoa.

Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe askotan taldeak daude eta talde horietako irakasleek estrategiak hausnartu, aztertu eta diseinatzen dituzte irakasle horiek bizi duten hezkuntza errealitatea eta harremanetakoa eraldatzeko.

Hemen aurkezten dugun lan honen xedea da material hautatuak, antolatutako eta sekuentziatuak ematea, bizikidetzaren esparruan ikastetxeetan erabil daitezkeen irakasle taldeen prestakuntzarako eta trebakuntzarako.

Ikastetxeen arteko aldeak askotarikoak dira, baita irakasleen ezaugarriak ere. Hori dela-eta, material hau egokitzeko modukoa da eta hartan biltzen diren jarduerak, estrategiak eta tresnek aukera ematen dute testuinguruaren egoera zehatza aztertzeke, eta ikastetxe eta irakasle talde bakoitzarendako egokienak diren erabakiak hartzeko.

Hausnarketa partekatua eta adostutako proposamenak dira irakasleek bizikidetzak lantzeko dituzten tresnarik garrantzitsuenak.

Irakasle taldeek prestakuntzako eta askotariko jardueretarako materialak errazago hautatzeko, hona hemen askotariko jarduerak dituen proposamen hau: talde-dinamikak, hausnarketarako galdera-sortak, azalpen testuak, kasuen azterketa, azterketarako bideoak, diapositiba aurkezpenak...

Materialaren deskribapena

Edukiak 3 multzo edo modulu independentetan bildu dira:

- Gatazka. Gatazkak konpontzeko estrategiak.
- Disrupzioari aurrea hartzea.
- Komunikaziorako trebetasunak irakasleendako.

Modulu bakoitzean saioka antolaturiko jarduerak aurkeztu dira. Saioetako edukiek progresio-hurrenkera dute. Hau da: aurrera egiten da eta saio bakoitzean lantzen diren edukiak aurreko saioetan landu direla uste da.

Gatazkaren moduluan 10 saio daude, disrupzioarenean 8 eta komunikazio trebetasunenean beste 8. Saio bakoitzak 3tik 7 jarduera bitarte ditu eta gutxi gorabehera bi ordu eta erdian egiteko modukoak dira. Saio bakoitzaren aurkezpenean helburuak eta jarduerak ageri dira.

Saio bakoitzean askotariko jarduerak daude, edukietara hurbiltzeko modu bat baino gehiagorekin eta, bereziki, parte-hartzea eta hausnarketa sustatzeko prestatu dira.

Jarduera bakoitzean azaltzen da nola egin behar den eta hura egiteko zer material den beharrezkoa. Haietako gehienek ez dute material osagarririk behar. Jarduera gutxi batzuetan erraz aurkitzeko moduko tresnaren bat erabili beharko da (argazkiak, kartulinak...). Hiru moduluetan Power Pointeko diapositiba aurkezpenak daude, kontzeptu teorikoak argiago laburtzeko. Era berean, hiru moduluetan bideoak aztertzeko jarduerak daude. Bideo horiek honako hauek dira:

- Gatazkaren moduluan: "Mediación en centros educativos" UNED. (2001).
- Disrupzioaren moduluan: "Indisciplina y relaciones familia/escuela" Valentziako Generalitateko Hezkuntza Kontseilaritza.
- Irakasleendako komunikaziorako trebetasunen moduluan: "La entrevista: un instrumento de trabajo para el profesorado". Madrilgo Erkidegoko Hezkuntza Kontseilaritza (1996).

Power Pointeko diapositiba aurkezpenak eta bideoak azken orrian erantsi den DVD-an daude.

Horretaz gainera, komunikaziorako trebetasunen moduluan liburu baten gaineko lan proposamena egiten da: Ferran Ramón-Cortés (2005) *La isla de los 5 faros*. Bartzelona: RBA Libros. Liburu hau ez da sartu.

Bibliografa aren atalean hiru azpital egin dira: bata, iturrien zerrenda (jarduerarik gehienak hortik atera dira eta/edo horretan oinarritu dira); bigarrena, bizikidetzaren gaineko bibliografa, eta hirugarrena, webgune interesgarriak biltzen dituen agiria.

Materiala nola erabili

Materiala modu batean baino gehiagotan erabil daiteke. 3 moduluetakoa bat aukera daiteke eta saioak garatu, diseinaturik dauden bezala. Hala ere, modulu bateko saio edo jarduera batzuk soilik hauta daitezke eta saio gutxiagoko prestakuntza egin. Era berean, bi moduluetakoa edo hiru moduluetakoa jarduerak konbinatu daitezke.

Helburua da material hau irakasle taldeendako tresna bat gehiago izatea. Irakasle talde bakoitzak, haren beharren eta denboraren arabera, bere ikastetxerako komenigarriena den prestakuntza ibilbidea diseinatuko du.

Nolanahi ere, materiala taldean erabiltzeko prestatu da, ez bakarka, eta horretarako jarduera gidatuko duen animatzailea edo 2-3 pertsonako taldea behar da. Pertsona horien egitekoa, honako hauxe da:

- ▶ Taldeak garatuko lukeen ibilbidea diseinatzea eta saio hauek hautatzea: saio kopurua eta saioen edukia.
- ▶ Saio bakoitza aldezturik prestatzea, parte-hartzaileen kopurua kontuan hartzea eta horretarako beharrezkoak diren espazioak eta baliabide materialak eskura izatea.
- ▶ Jarduerekin ohitzea taldera eraman baino lehenago eta, beharrezkoa bada, taldearen tamainari eta ezaugarriei egokitzea.

Materiala ezagutzeko praktikoa gerta daiteke moduluetakoa bakoitzaren aurkibideak kontsultatzea lanaren ikuspegi osoa izateko. Modulu baten ikuspegi osoa izateko, saio bakoitza aurkezteko dokumentuak ireki behar dira; haietan esaten da zein diren helburuak eta jarduerak oso labur azaltzen dira.

Saio guztietan badira talde-dinamikak eta horien helburua da taldeko pertsonen arteko ezagutza, komunikazioa eta lankidetzaren handitzea. Hemen sartu dira konbentziturik gaudelako taldeen garapenerako eta kohesiorako garrantzitsuak direla. "Taldea sortzeko" lan honetan elkarrekin lan egiteko modu eraginkorragoak ikasten dira, elkarrekiko konfiantza garatzen da, komunikazioa hobetzen da eta pertsonak askeago daude jardueretan aktiboki parte har dezaten. Laburbilduz, irakasle taldeak hazi eta hobetzen dira.

2. Bizikidetzarako aholkularitzaren datuak

Bizikidetzarako Aholkularitza zerbitzu publiko bat da eta haren helburua da irakasleak, ikasleak eta familiak bideratzea eskolako gatazkak konpontzeko gaietan, berdin arteko jazarpenean, eta bizikidetzaren planetan eta antzeko beste alderdi batzuetan.

Familiei, irakasleei eta/edo ikasleei laguntza zuzena emateko zerbitzua:

- * Posta elektronikoaren helbidea: convive@cfnavarra.es
- * Zuzeneko laguntza ematen duen laguntza telefonoa eta erantzugailu zerbitzua: **900 841 551**
- * Zuzeneko beste telefono batzuk: **848 423 215 / 848 426 460**
- * Bizikidetzarako Aholkularitzaren egoitza:
Hezkuntza Departamentua: Santo Domingo kalea, zk. g. (3. solairua)
Iruña, 31001.
- * Webgunea:
<http://www.educacion.navarra.es/portal//Informazio+interesgarria/Bizikidetzarako+aholkularitza?languageld=6>

3. Araudia

Estatuko araudiarekin batera (Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa eta Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoa), Nafarroan eskolako bizikidetzak berriki onartutako bi arau hauen bidez arautzen da:

- 47/2010 FORU DEKRETUA, abuztuaren 23koa, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzkoa (2010eko 24. NAO, irailaren 24koa).
- 204/2010 FORU AGINDUA, abenduaren 16koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako eta pribatu itunduetako bizikidetzak arautzen duena (2011ko NAO, urtarrilaren 20koa).

Araudi honekin batera bi gida daude eta gida horietan ereduak eta iradokizunak bildu dira bi arau horiek ikastetxeetan errazago ezar daitezzen. Bizikidetzarako aholkularitzaren webgunean daude.

4. Laguntza eskaerak

IKASTETXEKO ZUZENDARITZARI JAZARPENENKO EDO INDARKERIAZKO KASUAK GERTATZEN DIRENEAN IDATZIZ ADIERAZI BEHARREKOA ESKU HARTZEKO ESKAERA

Beren Bizikidetza Plana aplikatuz, ikastetxeek dokumentu idatzi hau edo beste dokumentu idatzi batzuk erabil dezakete/ditzakete. Dokumentu horietan adierazi nahi diren gertaerak zehaztuko dira, antzemandako egintzak ikastetxeko zuzendaritzari aditzera emateko.

IKASTETXEKO/BHI-ko ZUZENDARI JN./AND.

Abenduaren 16ko 204/2010 Foru Aginduaren (urtarrilaren 20ko Nafarroako Aldizkari O ziala), 15. artikuluan esaten da nola jokatu behar den eskolako jazarpena gertatzen denean. Arau horren arabera:

- Hezkuntza komunitateko edozein kide behartua dago jazarpen gertaeren edo bestelako indarkeriaren berri ematera zuzendaritzari, haien jakitun izanez gero. (15.2.b art.)
- Ikastetxeak behartuta daude sortzen ahal diren indarkeriazko gertaera guztiak eta sufrimendua eragiten dutenak ikertzera. (15.2.a art.)

Ikaslea: **Maila:**

Eskaeraren arrazoiak:

.....

Gertatutakoaren deskribapen laburra:

.....

.....

Eskatzen dizut ikastetxeak egindakoaren eta arazoaren aurrerabidearen berri ematea.

BAI

EZ

Sinatua: (Aita edo ama, ikaslea, irakaslea, beste norbait)

Sinadura eta data:

Eskatzailearen izen-deiturak:

.....

NANA: Telefonoa:

Helbidea:

.....

Zer den: (*azpimarratu*) Ikaslea (mutila)

Ikaslea (neska):

Aita

Ama

Beste norbait (*zehaztu*):

.....

Ikaslearen izen-deiturak:

Adina: Maila:

Ikastetxea:

Tutorearen izen-deiturak:

Eskaeraren zergatia (*Beharrezkoa bada orrialdearen atzean idatzi*):

..... (e) n, (e) ko aren (e) an

Sinadura:

5. Bizikidetza batzordea eta arduradunak

Ikastetxeetan bizikidetza koordinatzen duten organoak Bizikidetza Batzordea eta ikastetxeko bizikidetzaren arduraduna dira.

Bizikidetza Batzordea zuzendaritzak izendatuko du eta kide hauek izanen ditu:

- * EZuzendaritza taldeko zuzendaria edo haren ordeztaritza dena.
- * Ikastetxean bizikidetzaren ardura duen irakaslea.
- * Ikastetxean bizikidetzan prestakuntza duen beste irakasle bat.
- * Orientatzailea.

Hori hala izanik ere, hala osatzea ezinezkoa bada, ikastetxearen errealitateari egokitzen ahal zaio. Ikastetxeak hezkuntza erkidegoko beste kide batzuk sar ditzake batzordean, beren bizikidetza planaren arabera.

Bizikidetza Batzordearen lanak funtsean zerikusia du Bizikidetza Planarekin, urtez urteko zehaztapen eta memoriarekin, bizikidetza arloko prestakuntza eta aholkularitzarekin eta hezkuntzako bitartekaritzaren gainean ikastetxeak egiten dituen jarduerekin (204/2010 Foru Aginduko 5. artikulua).

Bizikidetza Batzordearen eta Bizikidetza Planaren erreferenteak ondoko hauek dira: bakerako hezkuntza, zentzurik zabalenean hartuta, 1948ko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala, indarkeriaren prebentzioa, aniztasuna kontuan hartzea, elkarrikeria gatazkak konpondu ahal izateko, pertsona guztien arteko berdintasuna eta hezkuntza erkidegoko kide guztien parte-hartzea bultzatzea.

IKASTETXEKO BIZIKIDETZAREN ARDURADUNA

Ikastetxeko zuzendaritzak ikastetxean bizikidetzaz arduratuko den norbait izendatu beharko du eta ikastetxeko bizikidetzari dagokion guztia dinamizatzen arituko da, bai aurreneurrien aldetik bai hezkuntza aldetik. Eginkizunak 204/2010 Foru Aginduko 6. artikuluan zehazten dira (2011ko NAO, urtarrilaren 20koa).

6. 2011-2012rako eskainitako prestakuntza jarduerak

Ikastaroak:

- ▶ Irakasleendako 2 ikastaro hauek prestatu dira. "Eskolako jazarpenaren prebenzioa eta tratamendua" (Iruña eta Tuteran).
- ▶ "Erresilientzia bizikidetzarako hezkuntzan".
- ▶ "Bizikidetzeta eta teknologia berriak".

Mintegi orokorrak edo Sareak:

- ▶ Eskolako bizikidetzeta. Irakaskuntzako gaitasunak bizikidetzarako hezkuntzan. 16 Sarea (Iruñeko ILZ).
- ▶ Hezkuntzako bitartekaritza (Iruñeko ILZ).
- ▶ Gatazkak konpontzeko eta komunikatzeko trebetasunak (Iruñeko ILZ).
- ▶ Bizikidetzeta eta gatazken ebazpena hobetzeko estrategiak. Sakontzea. 15 Sarea (Iruñeko ILZ).

Mintegiak ikastetxean:

- ▶ Ikastetxean emateko 23 mintegi prestatu dira; bizikidetzarekin zerikusia duten gaiak 5 dira:
 - Bizikidetzeta eta gatazkak konpontzea.
 - Diziplina positiboa eta disrupzioa.
 - Trebetasun sozialak eta komunikaziokoak gatazken konponbidean.
 - Bitartekaritza ikastetxean.
 - Maitasunaren eta sexualitatearen tratamendua eskolan, indarkeria prebenitzeko.

Informazio saioak:

- ▶ 16 informazio saio klaustro osoei. Gaiak, 6 dira:
 - Eskolako jazarpena, prebentzioa eta tratamendua.
 - Gatazkak konpontzeko estiloak eta bizikidetzaren hobekuntza ikastetxean.
 - Eskolako disrupzioa.
 - Ikasgelako araudi proaktiboa.
 - Lehen Hezkuntzako 3. zikloan bizikidetzaren lantzeko materialen aurkezpena (bizikidetzaren Lehen Hezkuntzako 3. zikloan lantzeko materialaren aurkezpena);
 - Bizikidetzaren Plana egitea.

Lantegiak:

- ▶ “Bizikidetzaren batzordeetako kasuen azterketa”: ikastetxeetako bizikidetzaren arduradunen esku-hartzea koordinatzeko lantegia.
- ▶ “Taldeen lana gainbegiratzea eta haiei aholku ematea”.
- ▶ Komunikazio ez bortitzaren gaineko beste lantegi bat.

Lantaldeak:

- ▶ Modalitate hau irekia da eta irakasleek modu autonomoan erabiliko dute.

7. Bizikidetzarako aholkularitzaren webgunean aurki daitezkeen orientabideak

Orrialde honetan irakasleendako, ikasleendako eta familiendako askotariko orientabideak daude.

- Ikasleen eskubide eta betebeharren, eta eskolako bizikidetzaren gaineko araudi eguneratua.
- Prestakuntza jardueren ondoriozko dokumentazioa eta bizikidetzaren lantzeko askotariko materialak.
- Bizikidetzaren Plana prestatzeko eredua eta Bizikidetzaren Batzordeak esku-hartzeak nola egin jakiteko iradokizunak.
- Ikasleekin erabiltzeko hausnarketa txak.
- Bizikidetzaren diagnostikatzeko galdera-sortak.
- Gatazken konponketaren eta bizikidetzaren hobetzearen gaineko testuak eta bideoak.
- Esku-hartzea eskatzeko formularioak.
- Ikastetxe batzuetako esperientzia berritzaileen gaineko dokumentazioa.
- Ikasgelan dolu-egoerei aurrea hartzeko orientabideak.
- Hezkuntza esparruan genero-indarkeriako kasu bat gertatzen denean jarduteko gida.
- Kasuak aztertzeko plantillak.
- Bizikidetzaren eta diziplinaren arteko mugaketa.
- Pantailen, mugikorren eta gainerako tresna elektronikoen erabileraren gaineko hezkuntza ideiak.
- Etab.

8. Bibliografía

Hemen aurkezten dizkizugu irakasleek interesgarri iritzi eta adierazi dizkiguten liburuak, haien praktikotasunagatik edo haien gaiagatik. Bibliografía zabalagoa nahi duenak jo beza Bizikidetzarako Aholkularitzaren webgunera.

- BACH E. eta DARDER P. *Sedúcete para seducir. Vivir y educar las emociones*. Bartzelona: Paidós, 2002
- BOQUÉ, Carme. *Guía de Mediación Escolar. Programa de 6 a 16 años*. Bartzelona: Octaedro, 2007
- BOQUÉ, Carme. *¡Tú sí que vales! Cuentos breves y sencillos con propuesta de trabajo para educar las emociones y el desarrollo moral*. Bartzelona: Graó, 2008
- BOQUÉ, Carme. *Tiempo de mediación*. Bartzelona: Ceac 2005
- ETXEBERRIA, Xabier. *La Educación para la paz ante la violencia de ETA*. Bilbo: Bakeaz, 2003
- FERNÁNDEZ I. *Guía para la convivencia en el aula*. Bartzelona: CISS Praxis 2001
- GIRARD K. eta KOCH S.J. *Resolución de conflictos en las escuelas, manual para educadores*. Bartzelona: Granica, 97
- GÜEL M. *¿Por qué he dicho blanco si quería decir negro? Técnicas asertivas para el profesorado y formadores*. Bartzelona: Graó, 2006
- IZCUE J. eta ARANGUREN I. *Primera Vez, Suite Adolescente*. Buen material para trabajar en secundaria. Campaña de convivencia del año 10. Iruña. Nafarroako Gobernua (2009)
- BIMBELA, José Luis. *Gimnasia Emocional*. Granada. Osasun Publikoaren Andaluziako Eskola 2008
- LANTIERI L. *Inteligencia emocional infantil y juvenil. Ejercicios para cultivar la fortaleza interior de niños y jóvenes*. Madril. Aguilar, 2009
- MARÍAS F., PÉREZ S. eta beste batzuk. 21 relatos contra el acoso escolar. Boadilla del Monte. SM 2008

- MONJAS Inés. *PEHIS. Programa de enseñanza de Habilidades de interacción social para Niños/as y Adolescentes*. Madril. Cepe, 1997
- ORTEGA Rosario eta kolaboratzaileak. *Educar la convivencia para prevenir la violencia*. Madril. A. Machado Libros (Visor) 2000
- PUJOLAS, P. *Aprender juntos alumnos diferentes. Los equipos de aprendizaje cooperativo en el aula*. Bartzelona: Eumo Octaedro, 2004
- ROMAIN Trevor. *Anti-Bullying. Descubrir el acoso escolar y combatirlo*. Madril. Oniro 2010
- ROSENBERG Ph. D. eta MARSHALL B. *Comunicación no violenta*. Buenos Aires. Gran Aldea 2006
- SEGURA M. eta MESA J. *Enseñar a los hijos a convivir. Guía práctica para dinamizar escuelas de padres y abuelos*. Bilbo: Desclée, 2011
- SEGURA, Manuel. *Enseñar a Convivir no es tan difícil. Explicación de programas de aula*. Bilbo: Desclée, 2005
- SOLER J. eta CONANGLA M.M. *Ámame para que me pueda ir. De la familia obligada a la familia escogida. (Ideas para hablar con padres y madres)*. Bartzelona: Amat, 2006
- TORREGO J.C. *Mediación de conflictos en instituciones educativas. Manual para la formación de mediadores*. Madril. Narcea, 2000
- TORREGO J.C. eta MORENO J.M. *Convivencia y disciplina en la escuela. El aprendizaje de la democracia*. Madril. Alianza, 2008
- VAELLO, Juan. *Cómo dar clase a los que no quieren*. Iruña. Santillana. 2007
- Askoren artean. *Reirme contigo, nunca de ti*. Iruña. Hezkuntza Departamentua 2008

9. Baliabide interesgarriak interneten

<http://www.pnte.cfnavarra.es/convive/>

Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuaren webgune barruko bizikidetza aholkularitza. "Irakasleak" sailean baliabide praktiko asko dago bizikidetza hobetzeko. Ikastetxeetako esperientzietan biziki interesgarria da Altsasuko Mikel Donea BHIrena.

http://www.defensordelmenor.org/upload/documentacion/publicaciones/pdf/GUIA_Ciberbullying.pdf

Madrilgo Erkidegoaren Adingabearen Arartekoaren gida, ikastetxeetan ziberjazarpen kasuak gertatzen direnean.

http://ntic.educacion.es/w3//recursos2/convivencia_escolar/index.html

Hezkuntza Ministerioaren ataria, M^a José Díaz Aguadoren materialarekin.

<http://www.copoe.org/con-vivencia/index.html>

Valentziako institutuko irakasleek sortutako bizikidetza-ataria, esku-hartzerako estrategiekin, material praktikoekin, baliabideekin eta bizikidetza plan bati hasiera emateko jarraibideekin. Oso erabilgarriak dira, webgunetik har daitezke eta erraz ezartzeko modukoak dira.

<http://www.catedu.es/convivencia/index.php>

Aragoiko bizikidetza-ataria, baliabide, esperientzia eta har daitezkeen dokumentu askorekin.

<http://www.todosobremediacion.com.ar/>

Bitartekaritzaren gaineko webgunea (bitartekaritza modu zabalean hartuta).

<http://www.mariajosediaz-aguado.tk>

María José Díaz-Aguado Madrilgo Universidad Complutense-ko Hezkuntzarako Psikologiarako katedradunak sortutako materialak: artikulua, hitzaldiak, elkarriketak, bideoak, egileari eta bere lanari buruzko aipamenak, etab.

http://www.concejoeducativo.org/article.php?id_article=13

Gaztela-Leongo ikastetxeetan bizikidetza garatzeko egin diren proiektuak eta ideiak. Arlo horretako zenbait esperientzia deskribatzen diren artikuluekiko loturak. Atarian, Valladolideko Zorrilla BHI, haren bitartekotza programan zuzenean sartzeko loturarekin.

<http://es.youtube.com/>

Bilatu "Emilio Calatayud" eta Granadako adingabeen epaileak emandako hitzaldiak izanen dituzue. Gurasoekin lantzeko interesgarria da.

<http://video.google.com/>

Bilatu "Juan Vaello" eta irakasle eta ikuskatzaile honek ikasgelako giroaren eta disrupzioaren gainean prestatu dituen gaiak aterako dira. Klaustroetan ikusteko eta komentatzeko material ona da.

<http://convivencia.wordpress.com/>

Eskolako bizikidetzarako materialak.

http://www.educa.jccm.es/educa-jccm/cm/recursos/tkContent?pgseed=1195998104966&idContent=12424&locale=es_ES&textOnly=false

Bizikidetzaren hezkuntzarako materialak. Gaztela Mantxa

http://www.educa.jccm.es/educa-jccm/cm/educa_jccm/tkContent?pgseed=1204049002476&idContent=15663&locale=es_ES&textOnly=false

Bizikidetzako material gehiago Gaztela Mantxan.

<http://www.golden5.org/>

Golden5 proiektuaren helburua da hiru urtean (2004-2007) irakasleendako hezkuntza proiektu bat sortzea, ikasgelan eskolako giro atseginago eta eraginkorragoa izaten laguntzeko. Gaiak, hauek: "ikasgelaren kudeaketa", "harremanak eraikiz", "giro soziala", "ikaskuntza doitua" eta "familiaren eta eskolaren arteko harremana".

<http://www.proyecto-atlantida.org/>

Atlántida proiektua. Estatu mailako berrikuntza demokratikorako foro edo plataforma bilatzen du.

<http://www.pantallasamigas.net/>

Pantallas Amigas ekimenaren helburua da adingabeek Interneten eta online teknologia berrien erabilera ziur eta osasungarria egitea.

<http://www.internetsinacoso.com/>

Eskolako jazarpena ICTren inguruan gertatzen denean ziberbullying-az ari gara.

<http://www.pnte.cfn Navarra.es/creena/>

Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroa

http://www.navarra.es/home_es/temas/igualdad%20de%20genero/

Nafarroako Emakumearen Institutua.

<http://www.edualter.org/index.htm>

Bakerako, garapenerako eta kulturartekotasunerako hezkuntzari buruzko baliabide sarea.

<http://www.concejoeducativo.org/>

Gaztela eta Leongo hezkuntza kontseilua.

<http://www.cruzrojajuventud.org/>

Gurutze Gorria Gazteria. Bakea, garapena, materialak, baliabideak, jolasak...

http://www.coe.int/t/dghl/monitoring/ecri/default_en.asp

Europako Kontseilua. Webgune hau ingelesez dago eta hartan informazioa dago EBko herrialde batzuetako indarkeriaren aurkako programei, gaiei, argitalpenei, gertaerei eta artxiboei buruz, baita ECRIren ekimen propioei buruz ere.

<http://www.ucm.es/info/quiron/crecer.htm>

Haurren eskubideak. Hurrekin lantzeko jardueraren bat. Universidad Complutense.

<http://www.pentacidad.com/>

Gatazkak konpontzeko eta bizikidetzak kudeatzeko eredu interesgarria.

<http://www.acosoescolar.info/>

Eskolako jazarpenaren aurkako laguntza-lerroa, zeinetan psikologo eta haurren segurtasuneko aditu talde batek laguntza ematen dien eskolako jazarpena jasan duten adingabeei.

<http://www.defensordelmenor.org/>

Madrilgo Erkidegoko adingabearen arartekoaren webgunea.

http://www.protegeles.com/es_que_es1.asp

Haur pornografiaren aurkako webgunea.

http://urbanext.illinois.edu/con_ict_sp/

Illinoisko Unibertsitatea. Perdido sin saber qué hacer, una guía para llevarse bien.

<http://www.educacionenvalores.org/>

Hezkuntzako baliabide asko dituen webgunea.

<http://www2.elkarrekin.org/elk/elkarbizitzagida/>

Eusko Jaurlaritzako webgunea. Bizikidetza planak modu partekatuan prestatzeko material ona, euskaraz eta gaztelaniaz. Bizikidetza arduradunentzako prestakuntza ikastaroetan Nélidak azaldua.

<http://www.juntadeandalucia.es/averroes/impe/web/portadaEntidad?pag=/contenidos/B/ApoyoAlCurriculo/PortalesEducativos/>

Askotariko materialak dituzten loturak. Andaluziako Batzarra.

<http://www.baketik.org/>

Bake zentroa. Gatazken lantze etikoa.

Bakearekin zerikusia duten materialak aurkezten dira. Ikasgelan zenbait Im lantzeko 160 gida didaktiko azpimarratzekoak dira. Euskarazko eta gaztelaniazko materialak.

<http://www.digizen.org/cyberbullying/>

Ziberjazarpenaren gaineko webgunea, ingelesez. Lehen Hezkuntzako 4. mailatik DBHrainoko mailetakoko ingeles klasean lantzeko jarduera didaktiko errazak. Ikasgelan erraz erabil daitezkeen bideoen bat ere badago (ingelesez).

<http://www.habilidadesparalavida.net/>

Garapen pertsonal eta sozialerako hamar trebetasun psikosozial proposatzen dituen eredia. Zenbait material interesgarri salgai daude.

<http://www.espaciokrea.org/>

Gazteen sormen batzuk biltzen dituen webgunea. Nuevo Futuro Nafarroako Elkarte.

www.mobbing.nu/organizaciones-esp.htm

Mobbingaren esparru guztiak oso-osorik lantzen dituen webgunea, baita eskolakoa ere. Lotura nazionala, mobbing-a jasaten denean kontsulta daitezkeen zenbait helbide erabilgarri dituena.

www.defensordelpueblo.es

Webgune honetan badira eskolako indarkeriaren gaineko informazioa eta dokumentuak.

http://www.madrid.org/dat_capital/upe/supe_convivir.htm

Webgune honetan badira eskolako indarkeriaren gaineko informazioa eta dokumentuak.

www.solomediacion.com

Bitartekotza ikastetxeetan lantzeko materialak dituen webgunea. Oloteko (Girona) Institut Municipal d'Educació-ko materialak.

www.gernikagogoratuz.org

Gernika Gogoratuz Bakearen aldeko Aztertegiaren webgunea da. Bere helburua da Bakerako Kultura lantzea da. Dokumentuak, liburuak eta artikulak ditu, batzuk hezkuntzarekin zerikusia dutenak.

www.gva.es/violencia/

So a Erreginaren zentroak indarkeria aztertzeko duen webgunea.

www.fuhem.es/

Enpleguaren Etxearen Fundazioaren webgunea. Zenbait atal ditu eta horien artean honako hauek: Bakea Ikertzeko Zentroa (CIP), hezkuntza, dokumentazio zentroa eta argitalpenak.

<http://www.fundacionjunan.org/>

Hezkuntza emozionalaren gaineko webgunea.

<http://aspa-andalucia.org/>

Elkartasunaren eta Bakearen aldeko Andaluziako elkarteak. Kulturarteko hezkuntzarako, bakerako, elkartasunerako... material onak.

<http://www.acosoescolar.es>

Eskolako jazarpenaren gaineko berriak eta baliabideak.

<http://www.acosomoral.org/bully6.htm>

Zenbait arlotako baliabideak. Beste eskualde batzuetako laguntza-telefonoak eta posta elektronikoak.

<http://www3.unileon.es/dp/ado/ENRIQUE/Public21.htm>

Bideojokoak eta horiek sustatzen dituzten balioak eta kontrabaliak ikasgelan aztertzeko jarduerak proposatzen dituen webgune interesgarria. Ikasgelan estereotipoak aztertzeko interesgarria.

<http://www.disfrutalared.com/>

Nafarroako Gobernuak bultzatutako plan pilotua. Plan horren helburuak ondoko hauek dira: adingabeak gaitzea sarea modu arduratsu, seguru eta osasungarrian erabil dezaten; irakasleen eta gurasoen artean informazioa eta ezagutzak handitzea; profesional espezializatuen oinarri sendoa sortzea foru

lurralde osoan; hartzaileen erabilerak eta beharrak zein diren ezagutzea, eta ondorioak ateratzea Hezkuntza Departamentuak oinarri moduan erabiliz gainerako ikastetxeei eman diezazkien.

<http://www.es.amnesty.org/redescuelas/presentacion/>

Giza eskubideen aldeko eskola sarea.

<http://www.zerbikas.es/>

Zerbikas Ikaskuntza eta Zerbitzu Solidarioa sustatzen duen Zentroa da Euskadin. Gune honetan ekimenak sortzen dira eta hartan bat egiten dute Ikaskuntza eta Zerbitzu Solidarioko proiektuak erraztu eta indartzera bideraturiko ekintzek. Zerbitzu publikoa emateko borondatea duen entitate hau ez dago Administrazioaren mende eta Ikaskuntza eta Zerbitzu Solidarioa hezkuntzako berrikuntzarekin eta kalitatearekin lotzen ditu.

<http://roserbatlle.wordpress.com/>

Ikaskuntza-zerbitzuaren espainiar sarea.

<http://catedu.es/psicologiapositiva/>

“AULAS FELICES” Psikologia Positiboan oinarrituriko hezkuntza programa da eta Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleendako da. Doakoa eta aske hedatzekoa da. Arloetan eta tutoretzan lantzeko baliabideak daude eta oinarritzko gaitasunik zeharkakoenak bultzatzen ditu, baita tutoretza eta balioetako hezkuntza.

<https://sede.educacion.gob.es/publiventa/detalle.action?cod=13567>

DBHko bizikidetzaren gaineko azterlana Espainian.

<http://www.eycb.coe.int/compasito/default.htm>

Giza Eskubideen hezkuntzarako eskuliburua da, Europako Kontseiluak Bigarren Hezkuntzako ikasleendako prestatutakoa. Jatorrizko webgunea ingelesez dago.

<http://www.emici.net/prot/Protocolo%20Ciberbullying.html>

Ziberbullying-aren aurka eskolak jarduteko protokoloa.

<http://escolapau.uab.cat/img/programas/educacion/publicacion013e.pdf>

“Bakerako hezkuntzaren koadernoan” hirugarren liburukia da eta hartan erakitzen dugun “etsaiaren” irudia lantzen da.



ii. agenda

10. Bizikidetza batzordearen egutegia

“Bakea irribarre batekin hasten da”. Teresa Kalkutakoa

Curso 2011/12						Iraila	
Al.	Ar.	Az.	Og.	Or.	Lr.	Ig.	
			1	2	3	4	
5	6	7	8	9	10	11	
12	13	14	15	16	17	18	
19	20	21	22	23	24	25	
26	27	28	29	30			

“Ez ezazu hitzik egin isiltasuna hobetzeko ez bada”. Jose Luis Borges

“Bakea izanen duzu zuk zeuk bakea ematen baduzu”.

Marie Von Ebner Eschenbach

Curso 2011/12

Urria

Al.	Ar.	Az.	Og.	Or.	Lr.	Ig.
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	30	31
31						

“Jakintsua da zure amorrua arazoetara bideratzea, ez jendearengana, zure energiak erantzunetara eta ez aitzakietara bideratzeko”. William A. Ward

“Zure hitzen morroi eta zure isiltasunaren nagusi zara”. Foro femeninoa

Curso 2011/12

Azaroa

Al.	Ar.	Az.	Og.	Or.	Lr.	Ig.
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

*“Gure gatazka oker konpondutakoak gatazka soziala suspertzen du”.
Calo Iglesias*

“Munduan bakerik ez badugu, bata bestearena garela, gizon, emakume edo izaki hori gure anaia edo arreba dela ahaztu dugulako da”. Teresa Kalkutakoa

Curso 2011/12

Abendua

Al.	Ar.	Az.	Og.	Or.	Lr.	Ig.
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

“Gure esku ez dago munduko arazoak konpontzea, baina munduko arazoan aurrean guk ere zerbait egin dezakegu”. Carlos Díez

“Zerbait ez bazaizu gustatzen, alda ezazu. Ezin baduzu aldatu, zure jarrera alda ezazu. Ez kexatu!”. Maya Angelou

Curso 2011/12

Urtarrila

Al.	Ar.	Az.	Og.	Or.	Lr.	Ig.
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

“Iragana diren gure pentsamenduekin bat egiten dugu, existitzen ez den etorkizunean konpontzen saiatzen gara eta eskura dugun bakarra, orainaldia, galtzen dugu”. Eckhart Tolle

“Hondamendian harrapaturik geratzen zarenean, sormenari ireki behar diozu atea”. Anaïs Nin

Curso 2011/12

Otsaila

Al.	Ar.	Az.	Og.	Or.	Lr.	Ig.
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29				

“Jakitea norbait zertxobait zoriontsuago izan dela zu bizi izan zarelako. Horixe da arrakastaren esanahia”. Ralph Waldo Emerson

“Gauzak ez ditugu diren bezalakoak ikusten, ikusten ditugu gu geu garen bezalakoak”. Anaïs Nin

Curso 2011/12

Martxo

Al.	Ar.	Az.	Og.	Or.	Lr.	Ig.
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

“Jainkoari ez diot besterik eskatzen: mina ez dakidala arrotz izan”. León Gieco

“Zoriontasuna duzuna estimatzea da”. Hellen Keller

Curso 2011/12

Apirila

Al.	Ar.	Az.	Og.	Or.	Lr.	Ig.
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	16	17	18	19	20	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

“Ez iezadazu atzerritar izendatu urrun jaiotakoa naizelako”. Rafael Amor

“Ongi negoziatzeko ikasi behar da jendearekin gozoak eta arazoekin gogorrak izaten”. Margarita Martí

Curso 2011/12

Maiatza

Al.	Ar.	Az.	Og.	Or.	Lr.	Ig.
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

“Bidearen joanak nekatzen nauenean, lagun, ez dizut eskatuko hitz egin diezadazun, baizik eta eskua eman diezadazun”. Rabindranath Tagore

*“Inork ez du irribarre bat egiten ez dakien batek baino gehiago behar.
Mahatma Gandi*

Curso 2011/12

Ekaina

Al.	Ar.	Az.	Og.	Or.	Lr.	Ig.
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	


*Maita nazazu gutxien behar dudanean, zeren eta orduantxe beharko baitut
gehien”. Rosa Jové*

Bizikidetza planaren urteko zehaztapena

204/2010 Foru Aginduko 12. artikuluan araututako urteko zehaztapena ikastetxearen Urteko Programazio Orokorrean sartuko da eta, gutxienez, dokumentu honetan sartutako atalak izanen ditu.

1	Ikastetxea:			Ikasturtea:
	Bizikidetza plana zein ikasturtetan hasi den:			
2	Hastera doan ikasturte honetarako zer helburu ageri den urteko zehaztapenean	Arduraduna	Denborak	Ebaluazio adierazlea
3	Aholkularitzan eta prestakuntzan hautemandako beharrak:			
4	Aurreko ikasturteetatik datozen ekintzak	Arduraduna	Denborak	Ebaluazio adierazlea
5	Hastera doan ikasturte honetan ezarriko diren ekintza berriak	Arduraduna	Denborak	Ebaluazio adierazlea
6	Aurten erabiliko diren materialen zerrenda (bizikidetzaren arduradunak bildu eta ordenatuak. Komeni da hemen adieraztea zer tokitan dauden gorderik)			
	Materiala		Kokapena	
7	Bizikidetza Batzordeko kideak (aurreko ikasturtekoak ez badira):			
	• Arduraduna:			
	Izena:			
	Karguan zenbat orduz aritzen den:			
	Prestakuntza:			
	Pertsona horren lan plana:			
	• Bestelako organo edo egiturak:			
Sinadura eta data				

11. Bizikidetza batzordearen bilerak





IES Altsasu



IES Zizur



IES Noain



ADOSTUZ
Leitzako Amazabal BHIko
Bitartekaritza taldea

